

Aukerarik gabeko aukerak

Egileak: Xabier Paya eta Iker Orueta. Argitaletxea: Erein

Nagore Fernandez -
2022ko apirilak 17

Maleta bat. Hori da Xabier Payak eta Iker Oruetak apailatu duten *Bihotza kate* albumaren elementu sinboliko nagusia. Hala iruditu zait niri behintzat. Hara eta hona gabiltzanean norberaren gauzak, arropak, objektuak eta abarrak garraiatzeko erabiltzen dugun zera horrek, baina, istorioan zentzu sakonago bat iradokitzen digula esango nuke. Maletetan, eduki materialak ez ezik, momentuak, bizipenak eta sentimenduak ere badaramatzagulako, askotan, bizi berri bat hasteko aukerak ere badirenak. Izan ere, Carmen dugu protagonista orriotan, maleta eskuan, Madrilera bizitzen doan 24 urteko gaztea. Bere bizitza atzean uztea erabaki eta benetan maite duen horretan (antzerkian, hain zuzen) jarduteko aukerak aurkituko ditu hiriburuan. Dena den, frankismo garaian (zehazki, 1960ko hamarkadan) girotutako obra honetan, aukeratzeko ia aukerarik barik, ataka larrian jarriko du bizitzak protagonista, bere bihotza (eta ametsa) katean artean ainguratuta uzteraino. Hortik izenburuak hartzen duen adierazkortasun semantiko eta poetikoa.

Albuma izanik, berebiziko garrantzia dute ilustrazioek. Ez bakarrik kuantitatiboki hartzen duten lekuari dagokionez; ezpada marrazkiz ere adierazteko eta kontatzeko duen gaitasunari begira. Guztiak ere nahiko minimalistak (ez horregatik sinplistikak) eta ilunak dira; ordea, iluntasun horrek talka egiten du ilustratzaileak jarri dituen argizko kontrasteekin, iluntasunean argitasuna ematen dizkiguten fokuekin, hain zuzen. Argi- ilunen jokoarekin, irakurleari nora begiratu eta arreta non jarri markatzeaz gain, alegia, fokalizatzeaz gain, tenebrismotik oso hurbileko efektua iradoki nahi izan duela ausartuko naiz esatera. Argiaren protagonismoak, gainera, bai eta proposatzen eta eraikitzen diren espazioek ere, tenebristak izan zein ez, antzezlanetako atrezzoari imintzioa egin nahi izan diotela esango nuke. Horrela bada, irakurleak, agertoki handi bat aurkituko du orriz orri, zeinetan, fokua ez diren ezkututzen, ezta espazioa mugatzen dituzten hormak eta atzeko oihalak ere. Hala izatekotan, badu joko dramatiko eta metanarratibo horrek zer aipatua: batetik, protagonista teatros teatro baitabil; bestetik, Carmenen beraren bizitza eta istorioaren nondik norakoak ere oholtza gainean eta antzeztuz bezala bistaritzen zaizkigu. Maleta irekitzearekin batera, irakurleak antzezlan antzezlanaren baitan aurkituko du, hortaz. Matrioxka errusiarrak.

Eta, paisaiak ez ezik, han-hemenka, hitzak ere beltzez jantzitakoak direla ohartuko da irakurlea, une zailak interpretatuko baitira pertsonaien bitartez; bestela esan, kolorez eta lengoaiatz bat datorren artefaktua dakar obrak. Hitzotan, gainera, diskurtso nahiko unibertsala aurkitu dut, egileen helburua, agian, hori ez izan arren; Carmenen pertsonaiarengan neure amumaren historia aurkitu dut ezinbestean. Neure buruari galdetzen diot halako zenbat Carmen egon diren gure familietan, Carmenen soslaian zenbat protagonista biltzen diren. Iragan partekatuarekin egin dut topo zentzu batean, memoriaz betetako maleta batekin.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaeren berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna

Gaiak

Xabier Paya

Literatura euskaraz

Literatura

Arteak eta kultura

Euskal Herria

Albiste gehiago



Garai bat, mila prismatan puskatua

IÑIGO ASTIZ

Maialen Lujanbio bertsolari eta sortzaileak egungo garaiaeren «erradiografia mugitu bat» taularatu du 'rr #5 marrak' izeneko emanaldi hibridoan. Iruñeko Laba gunean arituko da gaur




«Begirada da idazle baten baliabiderik inportanteena»

AINHOA SARASOLA

Molde laburrean aritzea da Linazasororen marka, baita umore garratza, absurdoa eta ironia baliatzea ere. Hala ondu ditu bere azken bi liburuek ere, ibilbide osoan landu duen estiloari eutsiz.

Merezi duten negarra

HAIZEA BARCENILLA



Eguzki gorrien islak

ELENA OLAVE

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste bulletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoa.

 Pribatutasun politika eta Lege informazioa irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

Gehien irakurriak

1

Kakalarri

ANDONI EGAÑA

2

Koherentzia

ONINTZA ENBEITA

3

«Galdere ez da estatua bai ala ez, baizik eta EBn nola kokatzen garen»

JON Q. URAIN

4

Artikoko oreka, atakan

GORKA BERASATEGI OTAMENDI

5

Kriptodiruak: birtualak ez diren galerak

IKER ARANBURU

berria

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

Facebook

Twitter

Instagram

Youtube

RSS

LEGEA

Lege Informazioa

Pribatutasun politika

Cookieak

Zozketak

Lan eskaintzak

Lizentzia

Publizitatea

Bidera zerbitzuak

MIDAS Media

zerbitzua eta
lana euskarazEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia



UZEI

emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzarako erakundea

European Union

Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"The member state of the European Union"
Eskualde Osarpeneko
Europar Funtsa (ERPF)
"European regional fund"berria
taldea

berria

bidera

zerbitzuak

HITZA

Mauka

BADOK



www.erenlaburrik.com



HAMAIKA



iragarkilaburrak.eus

Lokaridato
ataria

TALEA

